# AKTA, ARRETA SOZIOSANITARIOKO EUSKAL KONTSEILUAREN 2016KO APIRILAREN 5EKO EZOHIKO BILERARENA

**EGUNA:** 2016KO APIRILAREN 5A.
**LEKUA:** EUSKO JAURLARITZAREN LAKUAKO EGOITZA (2. aretoa)
**HASIERA-ORDUA:** 16:00
**AMAIERA-ORDUA:** 18:05

**PARTE-HARTZAILEAK:**

**Lehendakaria** IÑIGO URKULLU jauna
**Osasun sailburua**, JON DARPÓN jauna
**Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua,** ANGEL TOÑA jauna **Arabako diputatu nagusia,** RAMIRO GONZALEZ jauna **Bizkaiko diputatu nagusia:** UNAI REMENTERIA jauna
**Gipuzkoako diputatu nagusia:** MARKEL OLANO jauna
**Osasun sailburuordea:** GUILLERMO VIÑEGRA jauna **Gizarte Politiketako sailburuordea:** LIDE AMELIBIA andrea
**Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko foru diputatua,** BEATRIZ ARTOLAZABAL andrea **Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko foru diputatua,** ISABEL SANCHEZ andrea **Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko foru diputatua,** MAITE PEÑA **Bilboko Udaleko zinegotzia, EUDELen ordezkari,** IÑIGO POMBO jauna
**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,** JON ETXEBERRIA jauna **Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Osasun-laguntzako zuzendaria,** ANTONIO ARRAIZA jauna
**Gizarte Zerbitzu, Enplegu eta Gizarte Politiketako zuzendaria:** EMILIO SOLA jauna **koordinatzaile soziosanitarioak,** LOURDES ZURBANOBEASKOETXEA andrea eta JOSE ANTONIO DE LA RICA jauna
**Kontseiluko idazkaria:** MARIA HERAS andrea, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko aholkulari juridikoa.

**Ez etorri izana zuritu du** IMANOL LANDA EUDELeko Lehendakariak.

## GAI-ZERRENDA

Urkullu Lehendakari jauna da bilerako burua, eta eskerrak eman dizkie bertaratutako guztiei. Ondoren, saioko gai-zerrendari heldu zaio.

1. Aurreko bilerako akta onartzea (2016/01/25)

Idatziari ez zaizkio alegazioak eta oztopoak aurkeztu, beraz, onartu egin da.

Gai-zerrendako gainerako puntuak adierazitako parte-hartzaile bakoitzak egindako azalpenak dira. Azalpen horiek errazago jarraitzeko Power Point aurkezpen bat proiektatu da. Akta honi atxiki zaio eranskin moduan.

2. Ildo estrategiko soziosanitarioen azalpen orokorra (Jon Darpón, Osasun sailburua. Angel Toña. Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua).

3. Arreta soziosanitarioaren hedapena: Batzorde soziosanitarioak, arreta soziosanitarioko protokoloak eta RAI-CA proiektua. (Guillermo Viñegra. Osasun sailburuordea).

4. Komunikazio eta informazio soziosanitarioa: Atari soziosanitarioa eta baliabide soziosanitarioen mapa. BetiON teleasistentzia plataforma. (Lide Amilibia. Gizarte Politiketako sailburuordea).

5. Arreta goiztiarreko ereduaren garapena Bizkaian. (Isabel Sánchez Robles. Bizkaiko Gizarte Ekintzako foru diputatua).

6. Gipuzkoako lurralde-batzorde soziosanitarioa eta lurralde-plan operatiboak. (Maite Peña. Gipuzkoako Gizarte Politiketako foru diputatua).

7. Arabako egitura-baliabide soziosanitarioak. Egoitza-unitate soziosanitarioak eta Abegia egoitza-zentroa. (Beatriz Artolazabal. Arabako Gizarte Zerbitzuetako foru diputatua).

8. Adineko pertsonenganako tratu txarren detekzioa. (Iñigo Pombo. Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako zinegotzia eta EUDELen ordezkaria).

9. Osabide global proiektua adineko pertsonen egoitzetan. (Jon Etxeberria. Osakidetzako zuzendari nagusia).

10. Galderak eta eskaerak.

Ez dago ez galderarik, ez eskaerarik, beraz, gai-zerrendako puntu guztiak jorratuta, bilera bukatutzat jo da goian adierazitako lekuan eta orduan.

| IDAZKARIA | LEHENDAKARIA |
| --- | --- |
| María Heras Burzaco andrea | Jon Darpón Sierra jauna |